

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Abenduaren 5era arte zabalik gizarte-laguntzak eskatzeko epea (2. or.)
- > Nazioarteko Dantza Eguna (3. or.)
- > "Isiltasunaren erretratuak" erakusketa, Éric Le Blancheren lan sekretua (3. or.)



*"Drexleriana",
Pío Lindegaardi
omenaldia, Ángela
Cervantesekin

(3. or.)

Argazkia: José Luis Luna

Antzerkia. Maiatzak 2 (ostirala),
20:00etan, Muxikebarrin,
"La boda de otros". 15€.

Ikuskizun musikala. Maiatzak 3 (larunbata),
20:00etan, Muxikebarrin, "Hegoak". 10€.

A-
GENDA

Getxo, Euskadiko udalerririk seguruena 50.000 biztanletik gorakoan artean

Getxo delitu-tasa txikiena duen Euskadiko udalerrria da berriz ere, 50.000 biztanletik gorakoan artean, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak Udaleko Herritarren Segurtasunerako Batzordean aurkeztutako datuen arabera. 2024an, tasa 49,53 arau-hauste penaletan finkatu da (presentzialak eta ziberdelinkuentzia barne) mila biztanleko, Bizkaiko (65,18) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (63,31) batezbestekoa-oren oso azpitik.

Getxon egindako delituen gutzitiko kopurua %2,23 jaitsi da 2023arekin alderatuta, eta nabarmentzekoa da delitu presentzialetan %6,28ko jaitsiera izan dela. Beherakada horrek Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko lan koordinatuaren eragin positiboa berresten du, eta indartzeari ekingo dio, herritarren segurtasuna eta ongizatea bermatzen jarraitzeko. Herritarren Segurtasun Arloko zinegotzi arduradun Keltse



Eigurenek gogorarazi nahi izan du "segurtasuna ez dela zifren arabera soilik neurtzen, baizik eta herritarrek duten pertzepzioaren arabera ere, hainbat faktorek eraginda, hala nola komunikabideek, sare sozialek edo esperientzia pertsonalek". Horregatik, gai horren tratamendu arduratsua eta zorrotza eskatu du, eta azpimarratu du oso garrantzitsua dela

herritarrei jakinaraztea egiten ari diren polizia-lan prebentiboak.

Delitu larrienei dagokienez, hala nola homizidioei dagokienez, jakinarazi da 2024an dolozko homizidio burutua, hiru giza hilketa saiakera eta zuhurtziagabekeriako giza hilketa erregistratu direla. Horiek guztiak polizialki ebatzi

dira, eta egileak epailearen esku utzi dira.

Udaltzaingoaren oinezko patruilak Getxoko Udaltzaingoak lantzen duen gertutasuneko eta hurbiltasuneko polizia eredu indartzeko asmoz, jarraitu da *Korrika* lan egiteko modua mantentzen (oinetz patruilatzea); eta horrekin batera, bultzada handia eman zaie oinezko zerbitzu osoei, 2023an 982 izate-tik 2024an 1917 izatera igaro baita. Prebentzio zereginak ere %14,5 igoziren 2023arekin alderatuta.

Udaltzaingoa modernizazio teknologikoko plan batean murgilduta dago, polizia eraginkorragoa izateko etengabeko hobekuntza-aren bila. Horretarako, hainbat hobekuntza ezarri dira, hala nola agenteek gorabeherak kudeatzeko aplikazio mugikorra, bideo-wall berria, kamera pertsonalak eta bideozaintza jai-ospakizun handietan, etab.

Udalak toki honetan A3411 linea berrezartzeko exijitu dio Garraio Sailari

Azkorri Bizkaibusen zerbitzua aldi baterako kendu dute

Azkorri Bizkaibusen A3411 linea aldi baterako kendu dutela eta, eta orain zerbitzu horren ibilbidea Andra Mariko kiroldegiaren ondoan dagoen gurekuan, Gabriel Ramos Uranga kalean, amaitzen denez, Udalak Azkorri bertan berrezartzea exijitu dio Foru Aldundiari.

Geralekua kentzeko erabaki hori Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Mugikortasun Sailak hartu du, Udalak, epai judizial irmo bat betez, aipatutako lineako autobusak Zintoetxe Estratan biratzea ahalbidetzen zuen biribilgunea desegin egin behar izan baitu. Azpiegitura hori 2020an egin zen, hain zuzen ere, biraketa-maniobra seguru bat bermatzeko, ibilgailuak eta oinezkoak ibiltzen diren ingurune batean atzera-martxa bat saihestuz.

Aipatutako Sailak jakinarazi duen bezala, biribilgunea kendu ondoren, Segurtasun eta Osasun Batzordeak egiaztatu du une honetan ez dagoela autobusak Azkorri bira egiteko aukera segururik. Euskotren enpresa emakidadunak bideraezintzat eta arriskutsutzat jo du aukera bakarra — Azkorriko markesinaren ondoan atzeraka egitea —, bide eta oinezkoen se-



gurtasunerako arrisku handia duelako. Izan ere, jatorrizko arazoa hortik zetorren, 2018ko Segurtasun eta Osasun Batzordearen lehen salaketan ondorioz.

Udalak formalki adierazi du ez dagoela ados eta zerbitzua berrezartzeko eskatu du. Udal gobernuaren ustez onartezina da Zientzoetxe eta Azkorri inguru guztia garraio publikoko konexiorik gabe uztea, eta irtenbide alternatiboak aztertzen diren bitartean zerbitzua mantentzeko eskatzen du.

Gogoratu beharra dago, auzotar batek eskatutako errekerimendu judizialaren aurrean, Udalak biribilgunean eragindako espazioa aldatu egin behar izan duela epaiak agindutakoa jarraituz, nahiz eta etorkizuneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra biribilgunea hirigintza-baldintza egokietan birkokatze eta berriro egiteko aukera aurreikusten duen.

Bitartean, Udalak, segurtasun baldintzak betez eta indarrean dagoen legedia errespetatuz, Azkorriko zerbitzua berrezartzeko lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du.



APIRILAK 24 OSTEGUNA

Aste Santuko zinema campusa. "Zinema mutua egiten" tailerrak. 11:30-13:30, Romo Kultur Etxean tailerrak eta pelikulen proiektzio dinamizatuak (ele bitan). 6-11 urte. Doan. Aurretiko izen-ematea. **Proiektzio dinamizatua.** 17:00etan, Romo Kultur Etxean, "La casa eléctrica & Novias a la carrera". 6-11 urte. 2,5€.

Literatura-solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Philippe Claudelen "La nieta del señor Lihn" liburuaren inguruan.

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Pawel Pawlikowskiren "Cold war" (JBA). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Chopin: nocturnos, preludios y polonesas". Hizlaria: José Quisilant. Antolatzailea: Mugabarik-Garapen pertsonal eta komunitario-rako elkarte.

APIRILAK 25 OSTIRALA

Aste Santuko zinema campusa. "Zinema mutua egiten" tailerrak. 11:30-13:30, Romo Kultur Etxean tailerrak eta pelikulen proiektzio dinamizatuak (ele bitan). 6-11 urte. Doan. Aurretiko izen-ematea. Proiektzio dinamizatua. 17:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ernest eta Celestine" (euskaraz). 6-11 urte. 2,5€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Iciar Bollainen "Soy Nevenka" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

APIRILAK 26 LARUNBATA

Kontzertua. Omenaldia Pio Lindegardi. 20:00etan, Muxikebarrin, "Drexleriana", Angela Cervantesekin. 10€.

APIRILAK 27 IGANDEA

Nazioarteko Dantza Eguna. Herriko dantza eskolen emanaldia. 12:00etan, Portu Zaharreko kaian, barra klasikoaren erakustaldia (balleta). 18:00etan, San Nikolas plazan, ikasle, gazte eta helduen erakustaldia eta jendearentzako eskola irekia.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Oink oink" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Kaixo, Frida" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50€.

APIRILAK 28 ASTELEHENA

Getxo Antirrazistaren antzerki taldea. 18:00etatik 20:00etara, Romo Kultur Etxean, arrazakeriaren kontrako jarrera ikusarazteko. Zabalik interesatuentzat. Antolatzailea: Getxo Antirrazista.

Ludotekarako inskripzioa. Udako eta datorren ikasturterako izenematea zabalik maiatzaren 9ra arte. Inskripzioa eta informazioa: www.getxo.eus/euskar/home-euskera

APIRILAK 29 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJAN Eren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

Txokoa. 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean, solasaldia Bea Salaberri idazlearekin "Mesfida zaituz" eleberriri buruz. Izen ematea: labur.eus/irakurzaleak. Egizuk antolatuta.

APIRILAK 30 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), saioa Anna Ajmatova idazlearen obrari buruz.

Idazleak. 19:15etik 20:45era, Villamonteko Kultur Etxean. Euskaraz idazteko tailerra, Idoia Carramiñanak gidatuta. Izen-ematea: 619 935 541 / egizugetxo@gmail.com. Egizuk antolatuta.

Hitzaldia. 19:00etan, Urgull Zentroan (Urgull kalea, Algorta), "Testamentos, herencias y regimenes matrimoniales". Antolatzailea: EurGetxo elkarte. <https://eurgetxo.wordpress.com/>

MAIATZAK 2 OSTIRALA

Antzerkia. Getxo Eszena Irekia deialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, "La boda de otros" (gaztelaniaz). 15€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Fermin Muguruzaren "Black is beltza II" (JBA). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

MAIATZAK 3 LARUNBATA

Getxo Eszena Kalean. Areetako Geltokia plazan. 18:30ean, "Bira Kolore" (antzerkia) Zurrunka konpainiarekin. 19:30ean, "H" (zirkua) La Córcoles-ekin. Sarreara doan.

Ikuskizun musikala. 20:00etan, Muxikebarrin, "He-goak" (euskaraz). 10€.

Kontzertua. "Organo & Polyphonia" zikloa. 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokiaren, Jatorri abesbatza, Miriam Cepeda (organoa), Josean Llorente (zuzendaria). Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkar-atea-AMOMA.

MAIATZAK 4 IGANDEA

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarri aurrean, Bwatzabal Band. Sarreara doan.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Cazafantomas: Imperio helado" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Moko" (euskaraz), Gorakada Teatroarekin. 6€.

Abenduaren 5era arte zabalik gizarte-laguntzak eskatzeko epea

Udalak 2025eko Gizarte-laguntzen irizpideak eta onuradunak bete beharreko baldintzak onartu ditu, eta horietariko 180.000 euroko zenbatekoa aurreikusi du. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 5era arte izango da zabalik.

Aldizkakoak ez diren prestazio ekonomiko horiek gastu espezifiko edo apartekoak diren gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez dituzten udalerriko bizilagunentzat dira, gizarte-bazterketa egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrekoak baita pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzeko ere. Laguntzak eskatu ahal izateko, aurretik dagokion Gizarte Langileak egindako aldeko balorazio profesionala behar da. Eskatzai-

leek ondasun higiezinak %100eko jabetzan ez dute eduki behar Dirusarrerak Bermatzeko Errentaren araudian ezartzen diren baldintzetan eta laguntzaren modalitate bakoitzera-ko baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

Laguntzak etxebizitzari lotutako beharretarako izango dira (bizitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko), laneratzea eta gizarteratzea bultzatzeko (prestakuntza-prozesuen eta/edo lan gaikuntzaren ondoriozko gastuetarako, haurtzaindegietara eramateagatik sortutakoetarako, eta bizikidetzako unitateko adingabeen jarduerak medio sortutakoetarako), eta beste mota bateko laguntzetarako (elikadura, jantzi eta oinarrizko tresnen premietarako, osa-

sun-arloko premietarako, arreta pertsonalizatuaren plana bultzatzeko...). Guztira eta emandako laguntzen tipologia guztien artean, urteko zenbatekoa gehienez 3.700 eurokoa izango da, eta ostatuaren kasuan, gehienez 4.700 eurokoa.

Eskaerak

Eskaerak Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan entregatu beharko dira, aurretiko hitzorduarekin, honako telefono hauetan: 944660153 (Romo-Areeta), 944660101 (Algorta-Neguri) eta 944660130 (Getxo-Andra Mari).

Prebentzio tailerrak 60 urtetik gorakoentzat

Udaleko +60 Dinamizazio Zerbitzuak beste bi prebentzio tailer antolatu ditu, Osakidetzarekin lankidetzan, 60 urtetik gorako pertsonentzat. Lehenengo erorketak prebenitzeari buruzkoa izango da, maiatzaren 8an, 17:30etik 19:30era, Romo Kultur Etxean, eta maiatzaren 9an, 12:00etatik 14:00etara, Urgull Zentroan. Hurrengo, EPOC-i buruzkoa (arnasbidearen hantura kronikoa) izango da, maiatzaren 20an, 17:30ean, Romo Kultur Etxean. Interesatuek doan eman dezakete izena Romo Kultur Etxeko Dinamizazio Zerbitzuan (RKE) edo 94 466 00 22 zenbakian.

Getxo Enpresaren bi jarduera berri

Getxo Enpresa tokiko negozioek eskatzen dituzten ekimen pare bat bultzatzen ari da, erakundearen laguntzarekin: enpresaren hainbat arlotako prestakuntza saioak eta elkartutako negozioen arteko merkataritza harremanak. Lehenengoak, Getxoko edozein negoziotara zuzenduak, elkartuak izan ala ez, zortzi izango dira, askotariko gaiekin, eta elkartearen egoitzan edo online, 14:00etatik 16:00etara. Bigarrenek networkingeko hiru topaketa edo topagune izango dituzte ardatz, elkar ezagutzeko eta/edo harreman pertsonala eta komertziala estutzeko, komunitatea sortzeko, sinergiak sortzeko...



Dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainak Surf Turismoari buruz

Turismo unitateak herritarrei zuzendutako hainbat dibulgazio kanpaina egingo ditu udaberri honetan, eta Garazi Sanchez surfleri getxotarrak hainbat saiotan lan egingo du ikasleekin. Surfarekin lotutako jardueren gaikako katalogo bat ere egingo da, eta kostaldeko espazioetan indarrean dagoen araudia aztertzen jarraituko da. Ekintza horiek Surfeko Herrien Sarearen lan-helburuen barruan kokatzen dira. Sare horretako kide da Getxo, Ferrol eta Carballo eskualdeko (Galizia), Castrillongo (Asturias) eta Ribamontán al Mar-eko (Kantabria) udalen komunitatearekin batera.



Harrera Austriako ikasleei

Amaia Aguirre alkateak Batxilergoko ikasle austriar talde bat hartu zuen duela egun batzuk Udaletxean, Julio Caro Baroja institutuko ikasleekin hezkuntza-trukea egiten ari diren ikasleak. Vienako BG-BRG Gross-Enzersdorf institutuko 6 neska-mutilek, beren bi irakasleekin eta beren ikaskide getxotarrekin batera, ingelesez eta gaztelaniaz garatzen duten Kultura Aniztasunari buruzko Europako proiektu batean parte hartzen dute. Getxotarrak bisita hau itzuli eta Vienara bidaiatuko dute lehen aldiz.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



“Drexleriana”, Pío Lindegaardi omenaldia, Ángela Cervantesekin

Larunbat honetan, apirilaren 26an, Getxo Kulturak omenaldia egingo dio berriro Pío Lindegaard Getxo Jazzaren funtsezko kolaboratzaileari. Oraingoan, kontzertu bat eskainiko du Muxikebarrin, Ángela Cervantes Ibizako abeslari protagonista duela, eta *Drexleriana* aurkeztuko du, Jorge Drexler kantautore eta musikariaren lanari egindako omenaldia.

Ikuskizun honetan, Ángela Cervantesek hiru euskal musikari izango ditu lagun: Daniel Oyarzabal, Pablo Martín Caminero eta Borja Barrueta; eta, gonbidatu berezi gisa, Gladston Galliza kantautore brasildarra.

Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarreak 10 euro balio du.

Getxoarte beka eta Juana Bizkarra egonaldia

Getxo Kulturak herriko sortzaileei zuzendutako bi deialditan izena emateko epea ireki du. Maiatzaren 7ra arte eman ahal izango dute izena 2025eko Getxoarte beka eskuratu nahi dituztenek. Laguntza horien helburua da ikerketa ez-formaleko prozesuak eta espazioak ikusaraztea haien garapenean bitartekaritza txertatzen duen edozein praktika artistiko garaikideren inguruan, ekoizpen beka eta Getxon bizitzeko beka baten bidez, eta artisten belaunaldi berrien agerpena sustatzea.

Bestalde, maiatzaren 12ra arte egongo da zabalik arte eszenikoak sortzeko Juana Bizkarra egonaldian izena emateko epea. Laguntza horien bidez, euskal kultura-sektorea babestu nahi da, antzerki-, koreografia-, eszena- edo performantzia-lanak ekoizteko eta muntatzeko espazioa, baliabideak eta diru-hornidura eskainiz, eta, aldi berean, sorkuntza-prozesua getxotarrei hurbildu nahi zaie, kulturaren duten ezagutza, esperientzia eta parte-hartzea hobetzeko. Info.: <https://labur.eus/iuoluor>

Nazioarteko Dantza Eguna

Portu Zaharrea eta San Nikolas plazan izango dira igande honetan, hilak 27, Dantzaren Nazioarteko Eguna dela eta,



Getxoko akademiak eta dantza taldeek egingo dituzten dantza emanaldiak. Goizean, 12:00etan, barra klasikoaren erakustaldia

(balleta) izango da Portu Zaharreko moilan. Arratsaldean, San Nikolas plazan, ikasle gazte eta helduen lanaren lagin bat (18:00) eta interesatuentzako eskola bat (19:30) izango dira. Eguraldi txarra egiten badu, ekitaldia bertan behera geratuko da.



“Raíces de vino y sangre”, Porton girotutako nobela

Teresa Potoc idazle getxotarrak *Raíces de vino y sangre* eleberria aurkeztu du Romo Kultur Etxean, *Ciudades con misterio* trilogiako hirugarrena. Oraingo honetan, Douro Garaian, Portugalgo iparraldean, Haran Sorginduan zentratzen da trama. Portoko ardoa ateratzen den mahasti ugariz estalia, leku horrek misterio ezkutu asko gordetzen ditu “*jainkoen edari*” hau egiten den kintetan. Horietako batean, Quinta da Morte izenekoan, istorio hau garatzen da. Lurrarekiko, mahatsondoekiko eta ardogintzarekiko maitasuna, pasiorik oparoenak, sekreturik aitorrezinenak, benetako maitasuna eta giza sentimendurik apalena batzen dira bere lehen orrialdeetatik liluratzen duen eleberri honetan.

“Isiltasunaren erretratuak” erakusketa, Éric Le Blancheren lan sekretua

Larunbatean, maiatzak 3, 12:00etan, Éric Le Blancheren (1951-2016) *Isiltasunaren Erretratuak* izeneko erakusketaren hitzaldia/inaugurazioa izango da Bentan (Maidagan kalea 53). Eremita baten modura bizi izan zen Vouventen, Vendéeko herri bat (Frantzia mendebaldean). Etxeko hormak eta sabaia freskoekin estali zituen, eta ezkutuan 100.000 marrazki edo margo inguru egin zituen paper eta kartoi gainean. Mistikoa, bizitza osoan edertasunaren eta maitasunaren ideal desinteresatua izan zuen helburu.



Suntsitzear zegoela, Jacques Burtinek (Paris, 1955) aurkitu zuen bere lana 2018an. Artistaren lanaren zati handi bat salbatu zuen, eta, Françoise Murillo argazkilariarekin batera, Éric Le Blanche Institutua sortu zuen, margolariaren omenez erakusketak, hitzaldiak eta kontzertuak antolatzeko. Burtinek bi dokumental egin ditu eta Le Blancheri buruzko hainbat liburu argitaratu ditu.

Erakusketa maiatzaren 30era arte egongo da zabalik (14tik 18ra San Isidro jaiengatik izan ezik).

Kontzertua

Gainera, ostiralean, maiatzak 23, arratsaldeko 19:00etan, Jacques Burtin konpositoreak, zinemagile eta poeta ere bada, kora (mendebaldeko Afrikako harpa) hitzaldia eta kontzertua eskainiko du.

www.jacquesburtin.com



“Beste ahotsak beste begiradak”

Bajo el mismo sol antzezlanaren ondorengo solasaldia izango dira Romo Kultur Etxean ostegunean, apirilak 26, Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak antolatuta, Caósticaren eta Udalarekin elkarlanean, *Beste ahots batzuk, beste begirada batzuk* zikloaren barruan. Emanaldia 19:00etan hasiko da, doako sarrerarekin, eta amaiera ipiniko dio zinema denboraldiari.

Moisés Matok sortu eta zuzendutako antzezlanaren ondorengo solasaldia izango da, berak eta David Bingongek interpretatutako dutena. Lanak Europa eta Afrikaren arteko elkartzearen eta urruntzearen istorioa erakutsiko du, adineko gizon zuri batek gazte beltz batekin duen harremanaren bidez. Gazteak bere eguneroko errealitatea erakutsiko du bere bizitza hobetzeko aukeraturako lekuan. Istorio gurutzatuak izango dira, batzuetan zentzuga-beak, komediaren tonu lasaia behar duen tragedia ulertua izateko.



Aiboako institutu zaharra, kolapsatutako egituretako erreskate simulazio baten eszenatoki

Aiboako institutu zaharra (udal Brigaden eraikinak ordeztuko duena) eraisteko lanak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileek kolapsatutako egituretako erreskate simulazio bat egin zuten apirilaren 15ean (asteartea). Foru erakundeko Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak (PSISZ) eskatuta, eta Udalarekin lankidetzan, maniobra horien helburua izan zen gerta daitezkeen larrialdi-egoerak konpontzeko orduan gaitasun-maila hobetzea.

Ariketan 60 profesionalak baino gehiagok parte hartu zuten, suhiltzaileak eta lurraldeko hainbat kategoria eta parketako agintariak barne. Halaber, Ertzaintzaren txakur-unitateak eta Euskadiko salbamendu-txakurren taldeak eta Osakidetzako larrialdietako mediku-taldeek ere parte hartu zuten, besteak beste.

Simulazioa 18:00etatik 24:00etara egin zen, parte hartzeko txanda bitan banatu zen, bakoitza 3 ordukoa, eta establezimendu publiko bateko zati baten erorketa irudikatu zuen, hainbat pertsona desagertuta zeu-



dela. Horrelako larrialdiak, hain sarri egiten ez diren arren, erronka logistiko eta operatibo garrantzitsu bat dira, eta ahalik eta prestakuntza handiena eskatzen dute, baita koordinazio zehatz bat eta ekipamendu bereziak erabiltzea ere. Taldeak benetako baldintzetan entrenatzea funtsezkoa da estrukturan kolapso egoeretan erantzuteko duten gaitasuna hobetzeko.

Jardueraren beste helburu bat zen larrialdi protokoloak hobetzea eta ekipamendu aurreratuak probatzea, besteak beste, droneak kamera termikoekin, egonkortasun sentsoarekin, geofonoak edo urrutiko kontrol bidez tripulatutako lurreko funtzio anitzeko robota. Gainera, Aginte Postu Aurreratuaren (APA) eraginkortasuna probatu zen, eskala handiko larrialdiak kudeatzeko funtsezko tresna baita.

Obra-jarduerarik gabe egin ziren maniobrak, eraikuntza sektorearen Aste Santuko geldialdia aprobetxatuz, betiere parte hartzen zuten langile guztien segurtasuna bermatuz, bai eta ondasun guztiena ere.

Hitzarmenak berrituta Bizarra Lepoan, Hiruka, ALBE eta Egizu entitateekin

Udalak euskararen erabilera gizarteratzen jarraitzeko hitzarmenak berriro sinatzea onartu du, Bizarra Lepoan, ALBE, Egizu eta Hiruka entitateekin. Hitzarmenentan entitateek dituzten helburu, neurri eta ekintzak zehazten dira, ESEPerekin, Erabilera Sustatzeko Getxoko Ekintzak Planarekin, bat datozenak, "Euskararen erabileraren normalizazioa bermatzea eta euskal kultura bultzatzea direlako Legegintzaldiko Planaren 20. erronka", nabarmendu du Amaia Aguirre alkateak.

Bizarra Lepoan Euskara Elkar-teak, 86.400 euroko diru-laguntza edukiko du *Gehitu Kultura* eta *Gehitu Kirola* programen dinamizazio eta jarraipen lanak egiteko, baita Bapiruke aisialdiko ekimenerako eta Euskaraldia hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan parte hartzeko ere.

Bestalde, eskualdeko komunikazioa euskaraz zabaltzen duen Hiruka kooperatibak 67.833 euroko subentzioa jasoko du aldizkari soziokulturala eta atari digitala argitaratzeko gastuetan laguntze aldera.

ALBE Algortako Bertso Eskolak, 54.600 euroko diru-laguntzarekin, *Getxo Bertsoz Bertso* programa era-

mango du aurrera, besteak beste, Abra Saria, Eskolatik Plazara, Balkoitik Balkoira, Bertso Jaialdi Mundiala, Bertsoz Jairik Jai, Hitzaren Dantza, Albe Gala, bertso bazkariak eta saioak, eta Eskolako ikasleekin jarduerak.

Azkenik, Egizu Getxo Euskal-

dun elkarteak euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak antolatzen jarraituko du, horien artean, Berbalaguna eta kultur jarduerak, SENDI proiektua, *Kirola Euskaraz!*, *Kultura Euskaraz!*, *Literatura & Sorkuntza*, *Beharsarea* eta Euskaraldia. 44.100 euroko diru-laguntza jasoko du.



Gurot lehiaketaren hirukote irabazlea

Lur de Francisco, Aroa Arriaga eta June Lafont gazteek osatutako hirukotea izan da Gurot galderen lehiaketaren irabazlea Getxon, egungo ikasturtean. Getxotarrek ZEID jaialdirako sarrerak jaso zituzten eta pasa den apirilaren 4an, San Mames estadioan ospatutako Bizkaiko finalean parte hartzeko aukera ere eduki zuten. Bizkaiko bi mankomunitatek eta 14 udalerrik sutatuta, tartean Getxokoak, Gurot Getxoko zein inguruetako eta mundu zabaleko kultur galdera-erantzuneko aplikazio interaktiboa da, Tribial moduko jolasa euskaraz. Galderak hurrengo esparruei buruzkoak dira: gizartea, natura, hizkuntza, artea, kultura, zientzia, kirola eta aisia.

Euskaraldiaren txapen banaketa

Apirilaren 28an hasiko da Euskaraldia euskararen erabilera aktibatzekeo gizarte mugimenduan parte hartuko duten pertsonen rolak identifikatzen dituzten txapak (Ahobizi, Belarriprest eta Iribizi) banatzen. Ekimena maiatzaren 15etik 25era egingo da, *Elkar mugituz egingo dugu* lelopean. Getxon hizkuntza-ariketaren antolaketa sustatzen duen batzordeak (Udala, Bizarra Lepoan eta Egizu) bere egoitzetan banatuko ditu txapak, Basagoiti etorbideko 20. zenbakian eta Martikoena kaleko 16. zenbakian, hurrenez hurren. Era berean, boluntarioen laguntzarekin, informazio-mahaiak ere jarriko dituzte Azebarri elkartearen (apirilaren 29an eta maiatzaren 6an), Bentan (apirilaren 30ean, eta maiatzaren 7an eta 14an), Areetako Geltokia plazan (maiatzaren 8an, 9an, 10ean eta 11n) eta Algortako Geltokia plazan (maiatzaren 12an, 13an, 14an eta 15ean).

Bestalde, maiatzaren 29an, 18:30ean, bilera irekia egingo da Azebarri elkartearen egoitzan, Euskaraldia antolatzen laguntzeko.





70 ikaslek Jardunaldi Tekniko batean parte hartu dute udalerriko ekosistemak eta biodibertsitatea ezagutzeko

Getxoko 70 ikaslek, guztira, hamar irakaslerekin batera, udalerriko ekosistemei eta biodibertsitateari buruz ikasteko eta kontzientziatzeko Jardunaldi Tekniko batean parte hartu dute duela gutxi. Faturako kiroldegian egin zen jardunaldia Eskolako Agenda 2030 programaren barruan.

Jardunaldiak bi saio izan zituen. Lehenengoan, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua, Inazio Gonzalo erlezaina gure inguruan aurki ditzakegun espezie inbaditzaile desberdinei buruz mintzatu zen, haiek gure ekosistemetara dakartzaten eraginak azalduz. Bigarren saioan, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua, Xabier Buenetxea baso ingeniari teknikoak inguruan ditugun animaliez hitz egin zuen.

Getxoko 12 ikastetxek hartzen dute parte Eskolako Agenda 2030ean. Programa horren bidez, ikasturte bakoitzean ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin lotutako gai bat lantzen da. Hain zuzen ere, aurten 15. Garapen Iraunkorrerako Helburua (GIH) lantzen ari dira: *Lurreko bizitzaren ekosistemak*. Programaren fase desberdine-

tan zehar, ikastetxeek 15. GIH-arekin lotutako hainbat jarduerak egin dituzte. Adibidez, Getxon, ikasleak kalera atera dira herriko lurreko ekosistema desberdinak aztertzerako eta eskola-inguruan dituzten eremu naturalak kokatzera, ho-

rien garrantziaz ohartarazteko. Gainera, umeei inguruko biodibertsitatearen diagnostiko bat egin dute, hiriko faunaren eta landaren espezie ohikoenak ezagutzeko eta giza jardueren biodibertsitatean izan dezaketen eraginez hausnartzeko.



Ongietorria "Besarka dezagun itsasoa" ekimeneko igerilariari

Zalao Campillo Komunikazioko zinegotziak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Alberto Lorente igerilariari ongiatorria eman zioten asteartean, apirilak 22, arratsaldeko lehen orduan, Ereagako hondartzan Bilboko Itsas Museum Bilbaotik igerian egindako *Besarka dezagun itsasoa* erronka solidarioaren lehen etapa amaitu ondoren. Jon Ruigómez Itsas Museumeko zuzendaria eta Quique Herrero, *Bolsitas*, ingurumen-kontzientziazioaren erreferentia ere batu ziren. Aipatutako azkena eta igerialaria ekimeneko sustatzaileak dira, kirola, itsasoak eta hondartzak babesteko premia, eta ingurumenaren kontserbazioaren herritarren parte-hartzea bultzatzen dituenak. Egun horretan ehun bat boluntariok ingurunea garbitzeko lanetan eta tailerretan parte hartu zuten, eta 1.000 zigarro-punta batu zituzten beste hondakin batzuen artean.

Irteera botanikoa kostaldeko txilardietatik

Irteera botanikoa egingo da Galea eta Azkorriko kostaldeko txilardietatik hilaren 26an, larunbata, *GetxoNatura*, *Ezagutu eta Zaindu* jardunaldien barruan. Jarduera 09:30etik 13:30era egingo da, eta Amador Prieto botanikari profesional eta naturalistak gidatuko du eta Xabi Buenetxea fauna basatian espezializatutako naturalista ere izango du lagun. Lehenengoak ibilbidean zehar aurkitzen diren landareak identifikatuko ditu, eta ekosisteman duten funtzioa azalduko du, eta bigarrenak, berriz, bidean aurkitzen dituzten fauna-espezieak identifikatuko ditu eta horiei buruz hitz egingo du.

Egun horretarako aurreikusitako klimatologiarako egokia den landa-arropa eramatea gomendatzen da, baita beroa eginez gero hidratatzeko ura ere. Jarduera hori helduentzat eta 11 urtetik gorakoentzat da gomendagarria, baina adin horretatik beherakoak ere joan daitezke, tutoreen ardurapean.

Topalekua Aixerrorako errotaren ondoan izango da 9:30ean eta plazak mugatuak direnez, aldeztu aurretik izena eman behar da hemen: boluenatura@gmail.com.

KIROLAK

Gabriel Laiseca hil da, munduko estropadalari txapelduna

Gabriel Laiseca, 1957an Cascaisen (Portugal) belako Snipe klasean munduko txapeldun izan zena Juan Manuel Alonso-Allenderekin batera, joan den apirilaren 13an hil zen, 89 urte betetzeko egun gutxiren faltan. Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkarte-ko arraunlaria, txikitatik sartu zitzaion belarako zaletasuna. Juan Manuel osabak zuen itsasontzi batekin hasi zen, Udondoko ontzioletan egin zuten txalupatxo batekin, zeinek 13 eta 14 urterekin Abran bueltaka ibiltzen zen.

Ondoren, snipean nabigatzen hasi zen, Brasilgo Munduko Txapelketan parte hartu zuen eta, Manuelekkin batera, 1959ko Europako Txapelketa irabazi zuen Bartzelonan. Munduko Txapelketa irabazteko erabili zuten ontzia ikusgai dago Marítimo elkarteko atondoan.

Europar zehar hainbat estropada egin ondoren, Olinpiadara iritsi ziren eskubide osoz, eta 23 herrialdeen artean 11. postuan gertatu ziren. Ondoren, Gabriel Laiseca altuerako estropadetara igaro



zen eta 1992an ozeanoa zeharkatu zuen, Cadizetik Santo Domingora.

"Bizkaiko estropadalari handienetako bat joan da... gizon alaia, isekaria eta itsas istorio, pasadizo eta arrakasta ugari dituen", nabarmendu dute Klubetik.

José Luis Azqueta Trofeoa

Euskal, kantabriar eta asturiar klubetako ehun estropadalari baino gehiago bilduko dira asteburu honetan, larunbata eta igandean, hilak 26 eta 27, Abrako uretan, bela arineko José Luis Azqueta Trofeoan, 23 ekitaldi betetzen dituenak. RCMA-RSC elkarteak eta José Luis de Ugarte Bela Eskolak antolatuta, besteak beste, Udalaren laguntzarekin, proba, espezialitate horretako lehiaketa ezagunenetako bat, puntuagarria izango da Euskal Ligarako.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, GETXOKO EMAKUME ETA GIZONENTZAT IRISGARRIA

Bai, azkenean hasi dira Bidezabaleko arrapalak aldatzeko lanak, etengabe hondatzen aritu diren arrapala horiek aldatzekoak, eta, hain zuzen ere, horiek aldatzeko nahikoa denbora behar izan dugu.

Getxon batzuetan izaten diren zailtasunen berri badugu eta denok bezala jasaten ditugu. Eta noski, guk, gure familiak edota lagunek ere sufritzen dute arrapalak ez dabilzanean. Inork ez dezala zalantzarik izan. Eta jakin ere bai denbora luzez egon garela konponbide bila. Baina udal batek kontratu bat duenean, kasu honetan Getxokoak, ezin du nahi duenean hautsi, eta legeak eta arauak agintzen digutena bete behar dugu. Denok bezala. Baina, gainera, erraza dirudiena asko zailtzen da udal batean, bete behar dugun araudia tarteko.

Azkenean, bai, udal-gobernuaren eta talde teknikoaren dedikazio handiz, Bidezabaleko 3. eta 4. arrapalak, metrotik eta anbulatoriotik hurbilen daudenak, aldatzeko lanak hasia lortu dugu. Eta lan horiek amaitzen direnean, Bidezabaleko 1. eta 2. arrapalak ere berritzeari ekingo diogu. Eta horrela, gure jarduketa zuzentzen duen zerbitzu publikoa betetzen jarraitu ahal izango dugu. Eta Getxoko EAJk herritarrekin hartutako konpromisoak betetzen jarraituko dugu. Kasu honetan, irisgarritasunarekiko konpromisoa, getxotarrok merezi ditugun zerbitzurik onenak eskaintzeko konpromisoa, egunegun gure bizi-kalitatea hobetzeko.

Bidezabaleko arrapalak, hilabete batzuen buruan erabilgarri egongo dira, eta espero dugu, behintzat hel-



burua bada, zuzen eta egoki funtzionatzea eta Venanciotik metrora, anbulatoriora eta Borobia ingurura igo ahal izatea, inork inolako arazorik izan gabe.

Ia milioi bat euro Bidezabaleko arrapalak aldatzeko, Salsidukoak eguneratzeko eta hobetzeko, eta Ereagako igogailua konpontzeko, denborak aurrera egin ahala arazoak dituelako eta funtzionamendu ezin hobea lortzeko jarduketa integrala behar delako.

Halaber, Getxon aurrera egiteko konpromisoa betetzen dugu, erreferentzia baita mugikortasunean eta irisgarritasunean. EAJk duela urte asko egindako apustua da, hiria herritarrentzat izan dadin, herritarrek erabil dezaten eta goza dezaten.



EAJK ETA PSEK GALDUTAKO 7,3 MILIOI EUROEI BURUZKO KONTU-IKUSKAPENA ERAGOTZI DUTE

Duela gutxi jakin genuen gobernu-taldeak (EAJ/PSE) udal-kontabilitateak 7,3 milioi euro baino gehiago desagerarazi zituela, gure udalerrian 1995etik ordaindu gabeko ordainagiri eta isunei dagozkienak. Kopuru hori, adibidez, 2025ean gure herrian inbertitzeko aurrekontuaren ia erdia da.

Gure ustez, ez da ulergarria 7,3 milioi euro horiek galtzea, gobernu-taldearen utzikeria -eta axolagabekeria-urteen isla baita.

Hori dela eta, Alderdi Popularrak azken osoko bilkuran eskatu zuen, hain zuzen



ere, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak auditoria bat egin zezala, 7,3 milioi horien galeran udal-gobernuaren erantzukizunik dagoen edo ez zehazteko.

Ulertezina bada ere, EAJ/PSEk eta oposizioko beste alderdiek (EH-BILDU/PODEMOS) gure proposamenak aurrera egitea eragotzi

zuten, eta ontzat eman zituzten udal-gobernuaren azalpen lausoak eta 7,3 milioi euroko diru-kutxen galera.

ehbildu

PARENTESIAK JARDUNALDIAK MAIATZAREN 13RA ARTE

"Getxon ere posible da" lelopean, Parentesiak jardunaldien bigarren edizioa antolatu du Getxoko EH Bilduk, apirilaren 29tik maiatzaren 13ra arte. Lau saio antolatuko dira, lau gairen inguruan: pertsona nagusien zaintzak, kulturartekotasuna, hiri-mugikortasuna eta turistifikazioa. Jardunaldien helburua beste herri batzuetako esperientziak ezagutzeko da, Getxon ere nola gauzatu daitezkeen pentsatzeko. Saio guztietan itzulpengintza-zerbitzua egongo da. Hitzaldiak honakoak dira:

Apirilaren 29an 19:00etan Areetako Elkartegian "Zahartzaroan ere libre, aktibo eta ikusgarri" hitzaldia izango dugu, hiru partehartzailerekin: Nerea Almazarán psikologoa, Segurako alkate Izarra Urdalleta (bertan prozesu bat abiatu dute nagusiekin) eta Federico Armenteros, Madrileko 26 De Diciembre Fundazioa, LGTBIQ+ nagusien egoitza (online).

Maiatzaren 6an kulturartekotasunaz arituko gara, 19:00etan Villamonte

Kultur Etxean. Boubacar Diouf (marteroen plataforma), Txekun Lopez de Aberasturi (EH 11 Kolore) eta Liliana Ulchur eta Eneko Gerrikabeitia (Martin Etxea) izango ditugu.

Hiri-mugikortasuna izango da protagonista maiatzaren 8an, 19:00etan Romo Kultur Etxean. Bertan Pontevedra eta Bartzelonako esperientziak ezagutuko ditugu, Alberto Oubiña (hirigintza zinegotzia, online) eta Janet Sanz (Barcelona En Comúko presi-

dentea) kideekin batera. Raul Mendez EH Bilduko batzarkideak Bizkaiko testuingurua jarriko digu.

Azkenik, maiatzaren 13an turistifikazioaren txanda helduko da, 19:00etan Portu Zaharrean. Bartzelonako Asamble de Barrios por el Decrecimiento Turístico taldeko Daniel Pardo izango dugu, Bilboko SOS Alde Zaharreko Eritz Mendizabal eta Itziar Murua EH Bilduko legebiltzarkide zarauztarrekin. Info + getxo.ehbildu.eus



GETXOK HAURRESKOLA BERRIA IZANGO DU ROMON

Dagoeneko hasi dira Getxoko bigarren haurreskola izango dena eraikitze lanak, eta Romo Ikastetxe Publikoko eraikin hexagonalean egongo da. Alderdi Sozialistak kudeatzen duen Hezkuntza Zerbitzuak bultzatutako proiektu honi esker, 34 plaza eskainiko dira, honela banatuta: 0-1 urte bitarteko haurrentzako gela bat eta 1-2 urte bitartekoentzako bi gela. Proiektuaren helburua da 0 eta

3 urte bitarteko hezkuntzaren inguruko herritarren eskaerari erantzutea eta Getxon familia eta lana uztartzea erraztea, Jaurilaritzak 2024-2027 agintaldirako dituen helburuen ildotik.

Romoko Haurreskola berriak Eusko Jaurilaritzaren 612.000 €-ko diru-laguntza jaso du, Europar Batasuneko Next Generation funtsekin finantzatu-

ta, eta horrek lagunduko du aurrekontu osoaren zati bat estaltzen (750.000 € ingurukoa da). Lanak 2025eko abenduan amaitzea aurreikusten da, 2026tik aurrera erabilgarri egongo diren plazekin. Gainera, eraikin honek ingurumena errespetatuko du, jasagarria eta energetikoki eraginkorra delako, kalifikazio energetiko handiena lortu eta ia energetiko kontsumitzen ez duelako.



PALESTINA

Berrito atera ginen Romo eta Algortako kaleetara, Palestinaz hitz egiteari ez uzteko. Izan ere, udal honek isilik geratzea eta palestinarren genozidioa ez gaitzestea nahiago badu ere, getxotarrok manifestazioa egiten jarraituko dugu "nahikoa da!" esateko. Genozidioaren eta Israel estatu terroristaren inpunitatearen amaiera exijitzen jarraituko dugu. Palestina askatu!